

SEBASTIAN GARTZIA TRUJILLOK PARATURIKO LANA DA

Euskaltzaindiak sarean jarri du "Domingo Agirre. Gutun bilduma" liburua

Euskaltzaindiak "Domingo Agirre. Gutun bilduma" liburua euskarri digitalean eskainiko du gaurtik aurrera, Iker/Jagon-tegiak atalaren barruan. Lan hau Sebastian Gartzia Trujillok paratua da eta Euskaltzaindiaren eta Labayru Ikastegiaren arteko lankidetzaren emaitza da. Argitalpen digitala Bildumak sailean kontsulta daiteke, Euskaltzainak bilduman.

Akademiako iturriek jakinarazi dutenez, "Domingo Agirre. Gutun bilduma" liburuan, euskaltzaina izan zen Txomin Agirreren gutunak eskaintzen ditu Gartzia Trujillok. Agirreren 103 gutunek osatzen dute liburua.

Gartzia Trujilloren hitzetan, "gutun hauek garrantzi handikoak direla uste dut. Gutun hauetan aukera dugu Domingo Agirreren lagunenganako afektibitatea ezagutzeko, haren idazkien argitalpenei buruzko arazoak, politikarekiko hartu-emanak: filiak eta fobiak, haren une euforikoak eta depresiboak, bai eta idazleen arteko txutxu-mutxuak ere".